



ESTATUTUAK

1 ART. - DANBORRADA

Danborrada nazioarteko Donosti Cup futbol txapelketaren irudi da, bere izena darabil eta bere ikurra darama.

Bai Danborrada baita bere Batzordea ere tDCd 2011 Kultur Elkartearen zuzendaritzapean daude.

2 ART. - BATZORDEA

Batzordea danborradaren funtzionamendu, antolakuntza eta garapen egokiaz arduratzen da.

Gutxienez bost pertsonaz osatzen da, ondorengo karguak izanik: Lehendakaria, Lehendakariordea, Idazkaria, Diruzaina eta Batzordekidea, Aginte Postu ere direlarik.

Urtero berrikusten da, lehen Asanbladan egon daitezkeen bajak jakinaraziz, bigarren Asanbladan ordezkatuak izateko.

Estatutu hauetan agertzen ez den edozein zalantza edo egoera Batzordeak ebatziko du.

3 ART. - OSAKETA

Lerroen **osaketa** kideek antolatzen dute lehen entsegutik, 4koak danborretan, 5ekoak kupeletan, bandaren egunerako definituta izan behar du eta desfile egunean errespetatzen da. Azken orduko edozein baja Batzordeari komunikatu behar zaio bere aldaketa errazteko. Danborrada mistoa da eta, gutxienez, 67 parte hartzaile ditu:

- 3 Banderadun
- 1 Danbor Nagusia
- 1 Danborren kaboa
 - 20 Danbor
- 1 Kupel Nagusia
- 1 Lehen Kupela
 - 40 Kupel

4 ART. - KIDEAK

Kide Titularrak postu baten jabe direnak dira eta **Ordezko Kideak** aurrekoen baja egoera betetzen dutenak.

Ordezko kidea kide titularra izango da plaza huts bat bere jabetzan lortzen duenean.

5 ART. - AGINTE POSTUAK

Danbor Nagusia, Kupel Nagusia, Danbor Kaboa eta Lehen Kupela, Batzordekide izan behar dira entseguen gauzatze eta danborradaren garapen egokietaz behar bezala arduratzeko.

Edozein egoera dela eta aginte posturen batek bere kargua utziko balu, Danborradako Asanblada izango da bere ordezkoa aukeratuko duena, Batzordeak aurkeztutako hautagaien artean. Hautagaitzarik egon ezean eta derrigorrez bete beharrekoak direnez, zozketa bidez erabakiko da. Danborrak Danbor Nagusi eta Danbor Kabo izateko, kupelak Kupel Nagusi eta Lehen Kupela izateko.

6 ART. - BEHIN BEHINEKO BAJA

Dagokion urteko urtarrilaren 20an edozein arrazoi dela eta atera ezin den kidea **behin behineko baja** da eta plaza mantentzeko, beti dagokion izen emate epean, titularrak urteko kuotaren %50a ordaindu behar du eta ordezekoak e-mail bidez bere egoera komunikatu. Titularren kasuan Lehen Asanbladan materiala eta uniformeak utzi behar ditu bere ordezekoarentzat.

7 ART. - BEHIN BETIKO BAJA

Behin betiko baja kideak galtzea da, honako arrazoiengatik:

- Borondatezko baja.
- Kuota ez ordaintzea, ohiko urteko kuota nahiz plaza mantentzekoa. (Titularrak)
 - Behin behineko baja egoera ez komunikatzea (Ordezkoak).
 - Berezko plaza beste pertsona bati uzteagatik.
- Batzordeak onartutako arrazoirik gabe material osoa ez utzi edo ez jasotzeagatik.
 - Batzordearen zigorra Estatutuak ez betetzeagatik.

8 ART. - ITXAROTE ZERRENDIA

Ordezkoek betetzen ez dituzten ordezkapenak edo/eta plaza hutsak **itxarote zerrendan** izen-emandako pertsonak deituz osatzen dira, ordezeko kide bihurtzen direlarik. Deialdia ondorengo lehentasun irizpideak erabiliz egiten da:

- 1º - Urtetako antzinatasuna zerrendan.
- 2º - Staff Donosti Cup.
- 3º - Staff edo kideen familiar edo lagunak.

Urteren batean parte hartzea ezinezkoa duenak hurrengo urteari begira bertan mantentzeko intentzioa adierazi beharko dio Batzordeari.

9 ART. - ERREGISTRO LIBURUA

Eguneratutako **erregistro liburu** bat dago kide titularrak eta ordezekoak, bajak eta itxarote zerrendako pertsonak zehaztuz.

10 ART. - URTEKO KUOTA

Kide bakoitzak **urteko kuota** ordaintzen du, izen-emate epea amaituta inoiz itzuliko ez dena, antolakuntzako gastuak ordaintzeko (%100) edo behin behineko baja dela eta plaza mantentzeko (%50). Banderadunen kasuan, kuotaren %50 ere ordainduko dute.

Aipatutako epea bukatuta, Batzorde bidez inolako ordainketarik egin ez duenaren abisua jasotzen duenak, izen-emateko edo plaza gordetzeko aukera extra dauka segituan dagokion kuotaren bikoitza ordainduz.

Ordainketa honetan (edo beste edozeinetan) akatsen batek sortzen duen gehiegizko gastua kideak bere gain hartzen du, ez Danborradak.

11 ART. - ASANBLADAK

Batzordeak bi **Ohiko Asanblada** iragartzen ditu. Lehena abenduan (informatzeko) eta bigarrena otsailan (baloratzeko).

Ez-ohiko Asanblada iragartzeko eta baliozkotzat emateko, kide titularren %50-a baino gehiagoren asistentzia derrigortuko da eta hauengatik deitua izan daiteke:

- Batzordea (gehiengo osoa).
- Kide titularren %30a (idatzizko eskaera bidez).

12 ART. - ENTSEGUAK

Desfilea baino lehen 5 eta 7 **entsegu** bitartean egiten dira urtarrilak 20ko aurreko bi asteetan, baita kohesio ekintzak antolatu ere. Ezinbestekoa da bandarekin egiten den entsegura etortzea.

13 ART. - ORDUTEGIA ETA IBILBIDEA

Danborradak Donosti Cup bulego zenaren aurrean dauka irteera, Anoetako 5 eta 6 ateen artean, urtarrilaren 20ko 15:00tan, ondorengo **ordutegi eta ibilbidearekin**:

15:00 ANOETA ESTADIOA (*GOAZEN ERREALA-rekin kontzentrazioa*)

15:15 Ilunbe

15:20 KARMELO

15:35 Toribio Alzaga

Karaketako Gipuzkoar Konpainia

15:40 URTOKI ELKARTEA

16:00 Ternuako arrantzaleak

Euskal korsarioak

Toribio Alzaga

Irun plaza

Isabel II

16:15 Preboste plaza

16:50 ISABEL II (*IKASBIDE-rekin kontzentrazioa*)

Madrid Hiribidea

17:20 AMARA PLAZA HOTELA

17:40 Eustasio Amilibia

Carlos I

17:55 Armeria plaza
18:20 MAITE TABERNA
18:30 Ferrerías plaza (*TAMBORES SOLIDARIOS-ekin kontzentrazioa*)
18:45 ANOETA ESTADIOA

Batzordeak, momentuko gertaerak medio, aurreikusitako ibilbidea alda dezake, beti ere momentuan bertan informatuz parte hartzaileei.

14 ART. - ERREPERTORIOA

Errepertorioa ondorengo 12 piezak osatzen dute: "Donosti Cup ereserkia": Xalbadorren heriotzean, Donostiako Martxa, Tatiago, Iriyarena, Polka, Diana, Erretreta, Atso Martxa, Oilar Martxa, Gau Ibillera, Txuri-urdin, Ataque de Herriko Semes.

15 ART. - UNIFORMEAK

Banderadunek, bik sukaldari jantzia daramate. Txano irekia, zapi urdina, botoi bikoitzadun kasaka txuria logoaren bordatua ezkerretara duela, galtza txuriak gerriko txuriarekin, amantal txuri luzea ("Donosti Cup urrezko danborra"). Hirugarrengoak Danbor Nagusiaren arabera soberadun jantzia, urketari edo soldadu. Guztiek oinetako beltzak, ez kiroletakoak.

Danbor Nagusi emakumeak, eraldatutako urketari jantzia. Zapi txuria buruan, blusa txuria, jaka urdina zilar apaindurekin eta logoaren bordatua ezkerretara duela, gona txuria, oinetako beltzak, ez kiroletakoak eta eskuetan eskularru txuriak. Jantzia Donosti Cup Danborradaren jabetza da.

Danbor Nagusi gizonak, eraldatutako soldadu jantzia, 1813ko artilleriako tren gidariarena. Txano beltza apaingarriekin, jaka urdin iluna bularraldeko txuria detaile urdin eta edergarriekin, galtza txuriak, polaina beltzak oinetan eta eskularru txuriak eskuetan. Jantzia Donosti Cup Danborradaren jabetza da.

Danborjole emakumeek, urketari jantzia. Zapi txuria buruan, blusa txuria, gerruntze urdina logoaren bordatua ezkerretara duela, gona urdina, amantal txuria, oinetako beltzak, ez kiroletakoak eta eskuetan eskularru txuriak. Danborra inguratuz faldoia daramate. Jantzia Donosti Cup Danborradaren jabetza da.

Danborjole gizonak, soldadu jantzia; 1813ko artilleriako tren gidariaren trajea. Txano beltza, jaka urdin iluna bularraldeko urdin argia eta uhal txuriekin, galtza txuriak, zapata beltzak eta eskularru txuriak eskuetan. Danborra inguratuz faldoia daramate. Jantzia Donosti Cup Danborradaren jabetza da.

Kupel Nagusiak, sukaldari jantzia. Txano irekia, zapi txuria, botoi bikoitzadun kasaka txuria logoaren bordatua ezkerretara duela, galtza txuriak gerriko txuriarekin, mantal urdin motza eta oinetako beltzak, ez kiroletakoak. Zapi eta bordatu Donosti Cup Danborradaren jabetza dira.

Kupel joleek, sukaldari jantzia. Txano irekia, zapi urdina, botoi bikoitzadun kasaka txuria logoaren bordatua ezkerretara duela, galtza txuriak gerriko txuriarekin, mantal txuri motza eta oinetako beltzak, ez kiroletakoak. Zapi eta bordatu Donosti Cup Danborradaren jabetza dira.

Guztiz debekatzen da artikulu honetan ageri ez den edozein gehigarri janztea.

16 ART. - PORTAERA

Hezkidetza, lankidetza eta laguntza **portaera** egokiak mantendu behar dituzte parte hartzaile guztiek festaren jaigiroa eta errespetua uztartuz.

Desfile osoan zehar adi egon behar da Danbor Nagusiak, Kupel Nagusiak, Danbor Kaboak, Lehen Kupelak eta Batzordekideek ematen dituzten argibideak jarraituz, formazioko kokapena eta lerroen ordena mantendu behar dira, pieza interpretatzen den bitartean ezingo da ezer eduki eskuetan jotzea oztopatu dezakeena, geldialdi zehaztuak aprobetxatuz azken honetarako.

17 ART. - MATERIALA

Danborradako **material** guztia Donosti Cup Danborradaren jabetza da baina kide titularrek gorde eta mantentzen dute bere erabilpena ahalbidetuz behar denean, aurretik entregatzen eta ondoren jasotzen, ezarritako egun eta orduetan.

Donostian, 2024ko abenduaren 16a